GIZARTE POLITIKA ETA ZAHARTZE PROZESUA

RAMON SAIZARBITORIA
BEGO MONTORIO

Eskuarki, gizarte politikak jendearen beharrei aurre egiten saiatzeko definitu eta aplikatzen direla uste izaten dugu. Gauzak ikusteko modu honen oinarrian, gizarte politiken definiziorako paradigma razionalista dago, zeinaren arabera gizarte politikak, sistema sozialaren aldaketa morfologikoen eta gizartearen behar edo, gutxienik, eskarien aldaketaren arrazoizko erantzunak liratekeen.

Ikuspegi honetatik -zenbait eszeptikok, agian fede txarrez, Estatuaren ikuspegi teknokratikoa esaten diote-, Estatua aktore independientetzat jotzen da, bera da politikak modu razionalean definitzen dituena, interes orokorrei begiratuz eta behar eta eskari sozialen benetako baldintzatzaileak diren faktore sozial, ekonomiko, demografiko eta politikoei erantzuten saiatuz.

Eredu honen barruan krisi ekonomikoa, zahartze demografikoa, hiritartze prozesua eta familia tradizionalaren etendura, premia sozialak eta hauei aurre egin nahi dieten politikak mugatzen dituzten elementuak dira.

Dudarik gabe, ondo ikusia dago eredu razionalista eta, nola edo hala, mundu guztia saiatzen da horretara biltzen. Erakunderen batetako ordezkariek beren politikak eta beren planak aurkezten dituztenean, beti saiatzen dira behar larri bati, lehentasun objetibo bati -hau da, zientifikoki aztertua-, erantzuten diotela frogatzen. Eta lojikoa da horrela izatea, gogorra izan behar bait du prentsaurreko batera aurkeztu eta honelako zerbait esatea «seguru gaude gure Plangintza honekin ez diogula premia larriko ezein beharri erantzuten, baina horrelakoa atera da arrazoi taktiko eta estrategikoen ondorioz egin behar izan ditugun konponketen ondoren».

Aitortu behar da, hala ere, (agian kutsu frantsesa duelako eta egun Paris ez delako lehen zena moda kontutan, edo moda beste garai batzutan bezain estua ez delako), gero eta begi hobeagoz onartzen dela eredu razionalista, noizean behin bada ere, haustea. Inplizitoki denok dakigu halako Plangintza aurkezterakoan halako ordezkariak dituen begizuloak, goizaldeko desordutan alderdiko eta sindikatuko ordezkariekin izandako negoziazioen ondorio direla, eta bakoitzak koilara lapikoan sartu eta Plangintza bere aldera eraman nahi, eta neurri batean lortu ere egin dutela.

Hori eta askoz gehiago dakigu. Ordezkariak berak ere onartzen du maltzur keinuaz, paradigma razionalistak dituen atxekimenduen kaltetan.

Gaur egun, fenomeno sozialen jatorria, eta politika sozialak horien barruan daude, ikuspegi pluralistarekin interpretatzeko joera dago. Ikuspuntu honen arabera, gizarte politikak

interes-talde askoren arteko gatazka, konpromezu eta negoziazioen ondorio ezegonkorrak dira. Politika zehatzak ez ditu interes orokorrak baldintzatzen, eredu razionalistak azaltzen duen bezala, interes desberdinak defendatzen dituzten presio-taldeen arteko burrukak eta tratuak baizik. Ondorioz, oso gutxitan egokitzen zaizkie teorian politika horien hartzaile diren taldeen beharrei. «Xede-populazioarenak ez diren interesen eraginez sortuak izanik - dio Anne Marie Guillemardek-, azken finean, gizarte politika horien onuradunek baino gehiago, prozesu politikoaren egileek baldintzatzen dituzte».

Gauzei begiratzeko modu honek badu alde on eta txarrik. Errealitate sozialari ikuspegi indibidualistatik, hau da, psikologia indibidualaren arabera, begiratzea du akatsa; merezimendua ostera, politika sozialen oinarrian denon ongizatetik, justizia sozialaren zentzutik eta aldarrikatzen diren bestelako xede zintzoetatik oso urrun dauden intentzioak ager daitezkeela nabarmentzea.

Beste ikusmolde batzuetatik ere aztertu daitezke gizarte politikak, esaterako klase harremanen adierazpen gisa. Eredu pluralistaren arabera, erabaki politikoa interes autonomoak dituzten taldeen arteko gatazka eta negoziazioaren agerpena den bezalaxe, klaseen arteko gatazkak eta Estatuak liskar hauetan duen papera isladatzen du klaseen araberako iker-ereduak. Eskema honi jarraituz Estatua ez da aparatu neutroa, eredu pluralistak agertzen duen bezala, klase zapaltzailearen zerbitzurako zapalketa aparatua baizik.

Eskola eta joera desberdinak biltzen dituen ikuspegi honek, fenomeno beraren interpretazio kontraesankorrak eskeintzen ditu maiz. Horrela bada, politika sozialak, eta bereziki horren mugarri historikoa den Gizarte Segurantzaren sorrera, langileen lorpena kontsideratu izan da, hau da, agitazioaren eta ordena sozial burgesarentzat langileriak suposatzen duen arriskuaren ondorioa; bai eta horrek hazkunde ekonomikoan eta egonkortasun politikoan izan lezakeen eraginaz klase zapaltzailea jabetzearen ondorioa.

Gizarte politiken sortze prozesua ulertu eta horien esanahia argitzeko eredu gehiago ere badago, jakina. Esaterako, politika horiek antolaketa sistema politiko-administratiboaren ondoriotzat, alegia, antolamendu hori osotzen duten instituzio eta estamentuen arteko tentsio, kontraesan eta gatazken ondoriotzat jotzen dituen ikuspegia, interesgarria izan daitekeela.

Soldata sozialaren gaia lantzen dugunean, baten bat agian, eskema hau erabiltzen animatuko da, estatu mailan oinarrizko soldata sozialaren beharra onartzeko dauden zailtasunak argitzeko, osotara ez bada ere, partzialki esplikatzeko balio dezake eta.

Gizarte politiken xedeak, esplizitoki azaldutako helburuetatik guztiz urrunduta daudela uste duenik ere bada. Foucaulten ikuspegiak esaterako, boterearen teknologiatzat hartzen ditu, esplizitoki zapaltze-tresnatzat jotzen diren horien, polizia adibidez, osagarriak. Jendearen beharrei erantzuteko baino gehiago, biztanleria zaindu eta kontrolatzeko funtzioak bete eta disziplinak ezartzeko bidea lirateke politika sozialak. Ikusmolde honetaz Anne Marie Guillemardek egiten duen interpretazioari segituz «politiken esparruan martxan jarritako dispositibo instituzionalek (ekipamendu kolektiboak, arauketak, lege xedapenak...) sare deszentralizatua osotzen dute; kontrol iraunkorra duen botere lausotuaren bitartekari, norbanakoarengana ahalik eta gehien hurbiltzen dute boterearen makineria».

Agian horrexegatik errefusatzen dituzte zenbait gabetuk instituzio publikoek eskeintzen dizkieten laguntzak Foucault irakurri ez badute ere, instituzioen kontrolari ihes egin eta beren bizimoduetan eraginik izan ez dezaten.

Interesgarria da ikuspegi hau adibidez, drogaren kontrako programa zenbaiten ageriko eta sakoneko xedeak modu kritikoan bereizten saiatzeko. Bide batez esango dut, oso gutxitan azaltzen dela argi eta garbi, bai eta Foucaulten eredua utzirik, kanpainen sorburu eta eragilea droga konsumitzaileen beharra ote den, ala drogaren inguruan sortzen den delinkuentziak erasotako gizartearen beharra. Edota interpretazio sotilago eta gaiztoagoen ondorio ote diren.

Euskal instituzioetako gizarte politika dei dezakegun hori osotzen duten programak banan bana aztertuko bagenitu, elementu nahikoak aurkituko genituzke, hemen agertutako etiketa baten edo batzuren azpian sailkatzeko.

Gure gizarte politika puntu askotan mugatzen duena, alabaina, postfrankismoan garatua izatea da, herrialde industrailizatuetan Welfare State-aren krisiaz kezkaturik dauden momentu berean, eta gure «esfortzu soziala» gailurrera heltzen da EEBBetan eta Britainia Handian krisiaren frogak agertzen hasi direlarik.

Kolore guztietako indar politikoek egiten dute bat gastu sozialaren gehikuntzarekin. Garapen proposamenak inolako oposiziorik gabe burutzen dira. Gizarte politiketako inbertsioa demokraziarekin lotzen da eta, estreinatu berria izanik, inor ez da ausartzen errejimen zaharra gogoraraziko luketen belarriak erakusten. Gainera, kontzertu ekonomikoak eta kalkulo akatsengatik ustegabean hartutako zenbait diru sarrerek, gizarte zerbitzuetan nolabaiteko alaitasunez inbertitzeko aukera ematen dute. Horrela bada, besteak honantza zetoztela, gu joan gindoazen, eta Europarekin konkurrentzian ere hasiak gara zenbait programen estaldura-mailari dagokionean.

Pobreziaren kontrako burrukarakoa esaterako, (25.000 milioi pezetako kostua duen lau urtetarako plangintza eta Ardanzaren gobernuaren programa izarra bihurtu dena), plangintza frantsesa sortzen den une berean sortzen da -horretan oinarrituta gainera-, estatuan horrelako lehena izanik. Plangintza honek hasieratik bildu du erabateko adostasuna eta aurrea hartu die sindikatu edo herri mugimenduen erreibindikazioei. Aplikatzerakoan, gatazka politikoa sortu da euskal administrazioaren eta estatukoaren artean, eta hori, euskaldunek aurrea hartzeak Madrileko Giza Arazoetarako Ministerioari sortutako frustrazio gisa interpretatu daiteke.

Pobreziarena da, seguruen, politikoki hoberen «saltzen den» plangintza, edo bestela esanda, aplikatzen dutenek politikoki errentabilizatzeko duten sakoneko intentzioa hoberen agertzen duena. Oso denbora laburrean ia autonomia guztietan ezarri da, bai eta Madrilen agintzen duen alderdi beraren esku daudenetan ere, alderdia lehen esan bezala, plangintzaren kontrakoa izan arren. Kontua da, zaila dela horren errentagarritasunari muzin egitea.

Hasiera batean populazioaren edo sektore jakin batzuen beharrak betetzeko bideratzen diren ekintzen errentagarritasun politikoa bilatzea, kulturalki oso urte gutxitan onartu den zerbait da. Azkenerako, denok ulertu dugu «saltzen duten» plangintzak sortu behar direla. Politikoek asmo orijinalak bilatzen dituzte, arazoei aurre egiteko modu orijinalak, eta arazo edo behar orijinalak bilatzen ere saiatzen dira.

Inbertsioak politikoki errentabilizatzeko modua egunkarietan ateratzea da, eta inor ez da egunkarietan ateratzen egoitza lagunduetako gela amankomunetako ohe-tasa gutxitu duelako. Bai teknikariek, bai politikoek, askoz inbertsio errentagarriagoak bilatu dituzte, nahiz eta horretarako bete ahal izango diren eskakizun berriak sortu behar.

Izan ere, zilegia da galdetzea ea premien arrautzak argitu eta justifikatzen duen politiken oiloa, ala politiken oiloak erruten ote duen premien arrautza.

Aurrekoa txantxa ez dela pentsatzeko arrazoiak, egon badaude. Ni neu ere izana naiz -gorputzez bai, baina ez gogoz-, esplizitoki populazio jakin baten onurararako izaki, inplizitoki beste kolektibo baten beharrei erantzun nahi zieten politiken jaiotzetan.

Etxetikako Laguntza adibidez, autonomia pertsonal txikiko pertsonen, gehienetan zaharren, etxeko beharrei erantzuteko sortu zen teorian. Baina neuk badakit langabeak, gehienetan gazteak, okupatzeko sortuak zirela okupazioa behinbehinekoa izan arren. Egiazki, hiritarrek ez zekiten zer ote zen etxetikako laguntza, eta hasieran, kontrako jarrera askori egin behar izan zitzaion aurre, batez ere zaharrek ez zutelako udalak bidalitako arrotzak, beren etxeetan sartzea nahi.

Geroago ikusi denez, alabaina, zaila da tiro bakarrez bi elefante hiltzea -langabeziaren elefantea eta ezgaitutako zaharrena-, eta jokamolde horrek, kasu askotan, zerbitzuaren higadura ekarri du. Etxetikako Laguntza zerbitzuak sarritan, sektore marjinaletatik etorritako langileez, eginbehar horretarako gauza ez zirenez eta zerbitzu ona eskeini ezin zutenez hornitu dira.

Printzipio berberari jarraitzen diote zaharrentzako Kosta Brabako oporraldiek. Erreuma leuntzea da xedea, edo agian, eta akaso batez ere, hotelek denboraldi bajuan bezeroak edukitzea.

Azken gai honi dagokionez esan behar da beraz, gizarte politikak biltzen dituen ekintza askotxoren ezaugarri direla nolabaiteko ikusgarritasuna, eskariaren aurrekoak izatea -hau da, eskaintzak berak sortzen du eskaria-, kostu nahiko txikikoak izatea eta errentagarritasun politiko altua eskeintzea. Egokia da beraz, Edelman gogora ekartzea («The Symbolic Uses of Politics») esaten duenean gizarte politikek onura sinbolikoak eskeintzen dizkietela hartzaileei eta onura errealak aplikatzaileei.

Guzti honetan kezkatzen nauena zera da, batetik hutsaltzen ari dela gizarte politiken ideia, eta bestetik zaharreriaren errepresentazio soziala txarrerako aldatzen ari ote den konturatzea.

Izan ere, hobari txiki horiek, kostu txiki eta errentagarritasun politiko handiko ekintza horiek -autobusetarako dohaneko txartelak, txango subentzionatuak...-, prentsan agertzen diren bezala, elkartasunik gabeko zaharreria txotxoloaren irudia ematen digute, kezka nagusia dantzaldiak eta Errioxarako txangoak antolatzea duen zaharreriarena. Azken finean, lagundutako giza-taldearen irudia, hori bai, hauteskunde-lotura etengabea jasaten dute eta onurak gogoratu eta kentzeko mehatxua egiten zaie, onura horiek dohaneko errezetak nahiz autobus txartelak izan.

Berriro aipatuko dut geroago, zaharreriaren irudia osotzeko funtsezkoa den elementu hau, baina aurretik, gastu sozialari buruzko gauza pare bat komentatu nahi dut.

Europako Elkarteak metolodogia berezia -SEEPROS sistema- ezarri du gastu soziala modu homogeneoz kontabilizatu eta konparaketak egin ahal izateko. Euskal Autonomi Elkartean dagoen informazio estadistikoarekin, hala ere, ez da posible beharrezko gastu-sailak bereiztea.

Gastuetako kontu-sailen ia ehuneko 70a kontuan hartzen duen estimazioa egin ondoren, esan dezaket Autonomi Elkartearen esparruan, biztanle eta urteko 278.600

pezetakoa izan dela babes sozialerako gastua 1990. urtean. Nahikoa zenbateko garrantzitsua, Europako testuinguruan oraindik ere bajua izan arren.

LAGUNTZA SOZIALETAKO GASTUA EKUAK BIZTANLEKO

Danimarka	5.628
Luxenburg	4.741
Frantzia	4.488
Holanda	4.478
Italia	3.368
Euskal A.E.	1.990
Irlanda	1.854
Espainia	1.666
Portugal	730

Babes sozialean egiten dugun gastua, 1.990 eku, Espainiakoa baino handiagoa da, 1.666; Irlandakoa baino altutxoagoa, 1.854; eta Portugalekoa baino hiru aldiz handiagoa. Baina, aldi berean, Danimarkakoa baino ia hiru aldiz txikiagoa da eta Luxemburgekoaren erdia baino gutxiago.

Gastu gehikuntzarik ikusgarriena, zerbitzu sozialak deitu ohi dugun horren alorrean gertatu da, hau da, orain gutxirarte benefizentzia, pobreentzako ogi-banaketa, apaiz eta monjen kontua izaki, azken garaiotan klientelismo politikoa bilatzeko ekintzagune interesgarria bilakatu den horretan.

Sektore honek, egun, babes sozialerako gastu osoaren ehuneko 6a hartzen du, eta gehikuntza benetan ikusgarria izan du. Zoritxarrez Gipuzkoari dagozkion datuak baino ezin ditut eman, geuk egindako ikasketen araberakoak, baina gutxi gora behera, Araba eta Bizkaiko lurraldeetarako ere balio dezakete.

Gipuzkoako lurraldea bakarrik harturik, 1987an bost mila eta bostehun milioi gastatu zen, hurrengo urtean sei mila eta zazpirehun baino zerbait gehiago, 1989an bederatzi mila eta berrehun baino gehiago, eta hamar mila eta zazpirehun baino gehiago 90ean. Hau da, 1987 eta 1990 bitartean, gastua ia bikoiztu egin da, nahiz eta urtearteko gehikuntza tasak nahiko desberdinak izan.

ZERBITZU SOZIALETAKO GASTU PUBLIKO ARRUNTA: FINANTZIABIDEAK

	Milaka pezetatan	**Pztak./pertsona**	**% Bertikalak**
Udalak	5.557.908	2.602	15,87
Diputazioak	21.797.335	10.204	62,26
Lan Saila eta GS	4.365.385	2.044	12,47
Beste erakundeak	3.290.822	1.541	9.40
GUZTIRA	35.011.450	16.39	100,00

ZERBITZU SOZIALETAKO GASTU PUBLIKO ARRUNTA: SEKTOREKAKO BANAKETA

	Milaka pezetatan	Pztak./pertsona	% Bertikalak
Zaharreria	9.703.566	4.543	27,72
Minusbaliak	8.959.448	4.194	25,59
Haurrak eta gazteria	3.128.509	1.465	8,94
Emakumezkoak	315.121	147	0,90
Zokoraketa eta pobrezia	4.255.645	1.992	12,15
Drogomenpekotasunak	3.523.079	1.649	10,06
Populazioa oro har	5.126.082	2.400	14,64
GUZTIRA	35.011.450	16.390	100,00

Argibide gisa, zerbitzu sozialetako gastua sektoreka eta finantziabidearen arabera banaturik erakusten dut, bi gertakizun interesgarri azaltzeko asmoz. Batetik, munizipalizazioaren filosofia gastuaren %15etik beheragoko partizipazioan geratu dela, eta bestetik zaharrak direla benetan, zerbitzu sozialek gehien laguntzen duten sektorea, populazioaren ehuneko hamarra baino ez diren arren, gastuaren ia ehuneko 30 bereganatzen bait dute.

Europako estimazioen arabarea, zaharrek bataz beste, Barne Porduktu Gordinaren (BPG) ehuneko hamarra kontsumitzen dute, eta babes sozialaren gastu osoa, BPGren ehuneko 40koa izaten da. Honela bada, zaharrek babes sozialaren laurdena hartzen dute, eta zifra hori bat dator, lehen zerbitzu sozialetako gastuei buruz aipatutakoarekin.

Azken aurreko koadroan oso aldagai interesgarriari begiratuko diogu, lurraldea alegia. Zerbitzu sozialen alorrean -beste alor batzutan ere antzerakoa gertatzen da- ez dugu herri bat egitea lortu. Gipuzkoa, Bizkaia edo Arabako errealitateak oso desberdinak dira zerbitzu sozialetako antolaketaren sail ugaritan. Pertsonako gastuari dagokionez, oso antzerakoak dira Bizkaia eta Gipuzkoa, baina aipatzekoa da Arabako gastu diferentziala, hiru lurraldeetako batazbesteko gastua gainditzen bait du ehuneko berrogeitamarrean.

	Osp. pub. atentzioa Bizt.ko milaka pezetatan	Oinarrizko indizea: batazbes. 100	Ospitale kanpoko at. pub. Bizt.ko milaka pezetatan	Oinarrizko indizea: batazbes. 100	G. Zerbitzuak Bizt.ko milaka pezetatan	Oinarrizko indizea: batazbes. 100
Araba	42,3	117,9	11,5	103,6	24,3	148,3
Bizkaia	33,9	94,3	11,3	101,8	15,0	91,9
Gipuzkoa	36,9	102,8	10,5	94,6	15,5	95,0
GUZTIRA	35,9	100,0	11,1	100,0	16,3	100,0

Eta azken koadroa. Bertan ikusten dugu lurraldeen arteko desberdintasunak askoz txikiagoak direla osasun publikoaren alorrean, gizarte zerbitzuetakoan baino. Horretarako bi arrazoi egon daiteke. Batetik, osasunaren administrazioa zentralizatuagorik dagoela, baina nere ustez, arrazoi nagusiena da osasunarena zerbitzu unibertsalista dela, ez ostera gizarte zerbitzuak osotara harturik, oraindik ere kasurik gehienetan legez ezarritako eskubidea bait dira.

Zerbitzu berezitu, ez unibertsalista eta deszentralizatuek arrisku handiagoa dute gastua nahierara egiteko. Argudio hau zerbitzu sozialen unibertsalizazioaren kontrako arrazoibidea izan daiteke eta, hortaz, parentesi txiki bat egingo dut, etorkizunean gero eta garrantzi handiagoa izango duen arazo bat agertzeko.

Unibertsalizazioaren kontrako edo espezializazioaren aldeko joera honek etorkizun handia du. Filosofia aldetik, desberdintasun sozialen zuzentzaile gisa justifikatzen den gizarte politikaren printzipioetara itzultzeko saioa da. Funtsezko arrazoibidea da unibertsalizazioak Mateo efektua eragiten duela, hau da, aberastasunaren birbanaketa lortzen lagundu beharrean, egoera ekonomiko hobeagoan daudenak laguntzen dituela. Egia da zenbait ikerketek agertzen dutela klase ertainek gaitasun handiagoa dutela zerbitzu publikoetaz «baliatzeko», eta klaserik gabetuenek ostera, zirkuito publikotik ateratzen saiatu eta zirkuito pribatuaren prestigioa bilatzen dutela. Fenomeno hau, esan dudanez, zerbitzu publikoen kalitate maila handia denean egiazta daiteke eta, izan ere, osasunaren sektorean -jaiotze zerbitzuetan bereziki- eta hezkuntzaren alorrean egiaztatu ahal izan da.

Berriro diot garrantzitsua dela gai hau, interesgarria, eta sakonki aztertu eta eztabaidatu beharrekoa. Diru kontuekin bukatzeko eta gastuaren banaketa geografiko desberdina laburtzeko zera esango dut, Gasteizko Udalak gastu arruntaren ehuneko 10a baino gehiago erabiltzen du babes sozialerako, Bilbok ostera, ehuneko 4a baino ez du horretara destinatzen eta, zaharrek Donostian gizarte zerbitzuen ehuneko 16a hartzen duten bitartean, Gasteizen ehuneko 40a baino gehiago eskeintzen zaie. Seguruen egongo dira arrazoizko arrazoiak, desberdintasun hauek azaltzeko, baina ezin daitezke inolaz ere justifikatu: gure herrian lau kilometrotako tartean gertatzen diren gastu desberdintasunak, ulertezinak dira itxurazko batasun politiko-administratiboa duen lurralde batean.

* * *

Uste dut beraz, esan dezakedala nahikoa gastatzen dela babes sozialean, eta gastuaren desberdintasun instituzional eta lurraldekoek gastua inkoherentea dela pentsarazten digutela. Beste alde batetik, zaharrak azaltzen dira gizarte politikak gehien hobestutako talde gisa, eta politika horretaz egiten den publizitatearen ondorioz, gainerako hiritarrengan, gazteenengan batez ere, neurriz gainetik laguntzen zaiela pentsatzeko joera sortzen da. Izan ere, urtean 280 millioi gastatzen ditugu zaharrek oporrak Mediterraneoan eman ditzaten -honetan Gipuzkoak batazbestekoa baino gehiago gastatzen du, agian hondartza gutxi dituelako-, eta opor horien berri lau haizetara nola zabaltzen den ikusita, batek baino gehiagok pentsa dezake, komentzimendu osoz, handia eta alferrekoa dela zaharrentzako gastua.

Hau, berez, bada arazoa, baina are larriagoa bilakatzen da komunikabideek egunero literalki, bonbardatu egiten bagaituzte gurea zahartutako gizartea dela esanez. Eta horren interpretazio mekanikoa hauxe da: zaharrak sobran dira.

Ez zaituztet orain datu eta zifrekin itoko, fenomeno ezaguna bait da euskal gizartea, nonbait, sakonki kezkatzen duen gaia: gure gizartearen zahartzea, hain zuzen ere. Jakina denez, bi magnitudek baldintzatzen dute populazioaren zahartzea: zaharren kopurua -konbentzioz 65etik gorakoak-, eta 15 urtetik beherakoen kopurua. Gizarte batean zaharren proportzioa handia denean, piramidearen gailurrean zaharturik dagoela esaten da; haurren proportzioa txikia denean, oinarrian zaharturik dagoela esaten da; egoera biak batera gertatzen direnean, zahartze bikoitza jasaten duen populazioaz hitz egiten da.

Gurea, euskal populazioa, oinarrian dago zaharturik, eta gutxi zahartu da goikaldean, hau da, gure arazo demografiko nagusiena jaiotze-tasa bajua da, batez beste emakumeko 1,14 seme-alaba. Europako bajuenetakoa da eta, begi bistakoa denez, populazioa berrizteko behar den 2,1 horren azpitikoa. Honekin batera aldaketa gertatu da migrazioen balantzean, eta tradizioz Euskal Autonomi Elkartea inmigrazio esparrua izan bada ere, emigrazio zonaldea bilakatu da.

Nolanahi ere, erlatibizatu nahiko nituzke mehatxu demografiko hauek. Ez da oraingoa demografoek, beren kristalezko piramideei begiratu ondoren, etorkizun latza iragartzen diguten lehen aldia, eta azkena ere ez da izango, seguruen. Demografoak ez daude sekula gustora eta, frantsesak badira, gutxiago. Egia esateko XIX. mendearen hasieratik daude kezkatuta frantsesak zahartze horrekin, eta gure egunotan, bizitza-estadistiketaz loto zozketetaz baino gehiago kezkatzea lortu du Alfred Sauvyk.

Dena dela, mundu guztiak daki Malthus dela demograforik entzunena, agian herriak gustokoagoa duelako berak iragartzen zuen masifikazioaren berezko permisibitatea, Alfred Sauvyk iragartzen duen jaiotze-eza eta zahartze demografiko hotza baino. Dena dela, iragarpenetan huts egin zuen arren, huts egin zuen alor bereko jakintsuena bezala pasatu da historiara, Keynesen ustez, akats gutxiago egin zituen beste alor batzuetan merezi zuen ospearen kaltetan.

Agian horrexegatik diote demografoek beldur gutxiago huts egiteari, metereologo eta ofizioz iragartzen duten beste batzuek baino. Etorkizuna oraina bilakatzen den neurrian zuzentzen dituzte beren datuak, kontrolaezineko fenomeno ekonomiko edo sozialei egozten dizkiete desbideraketak, edo bestela, beraiek egindako iragarpenen arabera ezarritako politikaren eraginei. Euria egingo duela esaten duen metereologoarena bezalakoa da: euria badago, asmatu egin du, eta eguzkia badago, baita ere, bere iragarpenari esker euria ebitatu ahal izan delako.

Esaera zaharrak dioenez, gaitz larriek konponbide larriak, eta gaitz demografikoetarako ere bilatzen dira konponbideak. Ezaguna denez, Malthusek berak pobreei buruzko legea kentzea proposatu zuen, elikadurarako laguntzarik gabe umeak sortzeko gaitasuna murriztuko zitzaielakoan. Oraindik urrunagora joan zenik ere bada, eta langileen seme-alabak, hirugarrenetik aurrera, itotzea proposatu zuen batek. J. Swift-ek, Gulliverren Bidaiak asmatu zituen idazle ironikoak, asmoa borobildu zuen, eta haur horiek haragitegietan saltzea proposatu, aberatsen kontsumorako. Horrela, superpopulazioak mehatxatzen zuen janaritegi soziala hustu ordez, pobreek betetzen lagunduko lukete.

Esan beharrik ez dago, horrelako ezer ez dela behar izan egun ume gutxi egon daitezen, baina hala eta guztiz ere, arazo demografikoen ikuspegi mekanizista berbera, distantziak distantzia, izkutatzen duten konponbideak proposatzen dira egun ere.

Hor daude adibidez, zaharrentzako laguntza medikoak «hobeto» eta «zentzu handiagoz» administratzea eskatzen dutenak, eta ez eutanasia modu zintzoan planteatzea justifikatzen duten ikuspegi ugarietako bat erabiliz (urrunagora jo gabe alferreko sufrimendua galeraztea), zaharren kopurua gutxitu edo/eta horien atentziorako kostua aurreratzeko baizik, hau da, utilitarismo justifikagarriaren mugak luzaz gainditzen duen jarrera hartuz. Baina, horrelako adibide goibelak erabili beharrik ez dago azaltzeko, guztiz argumentazio azalekoa darabiltela piramide demografikoa batetik kendu eta bestean jarriz, gauzak gehiegi mugitu gabe, konpondu nahi dutenek. Hor dira, halaber, neurri pizgarri positiboak proposatzen dituztenak, hilean sos batzuk harturik, jendea ume gehiago ekartzen anima dadin. Hauek

ahaztu egiten dute nahitaezko baldintza bat bete behar dutela politika demografikoek eraginkorrak izango badira: desiraturiko ume kopuruari dagokionean, populazioaren sakoneko desio eta beharrei erantzun.

Nolanahi ere, eredu biologikora jotzea da jarrera tentagarri eta arriskutsuena, arazo sozialak oro har, eta demografikoak bereziki, aztertzerakoan. Baten batek esana du, fenomeno sozialak beren konplexotasunean antzemateko zailtasunak bultzatzen gaituela paradigma animala erabiltzen, eta ondorioz, gizartearen interpretazio darwiniarrak -Herbert Spencerrenaren antzekoak- egiteko arriskua sortzen da. Esan beharrik ez dago formula horrek zapalketa, gerra, tortura eta giza irrazionaltasunaren beste fruitu batzuk, filosofikoki justifikatzera eramaten gaituela.

Horrela bada, behin gizartea zaharturiko animalia, edo zaharturiko zelulak dituen ehuna balitz bezala aurkeztuta, ez da zaila zeluloterapia, transplante eta bestelako ebakuntzen beharra edo/eta aukera plantatzen hastea; eta kezkagarria da benetan, intentzio «soziologikoaz» aplikatzen direnean, ebakuntza horiek izan dezaketen edukina.

Txantxak alde batera utzirik, bi arrazoi nagusirengatik kezkatzen nau zahartze demografikoaren etengabeko aipamen horrek: batetik zaharrak sobran daudelako kozientzia soziala sortzen duelako, eta horrek gaitzespen joerak erakar ditzake. Izan ere gero eta gehiagotan aipatzen du historiak, amerikarrek *ageism* -stereotyping and generalizing about people because of their age- izenez bataiatu duten jarrera; guk hemen zerbitzu eta kontsultetan, emakume zahar guztiak gortutako amona tontuak bailira, **aizu amona!** esaten dugulako baztertuta uste dugun jarrera berbera. EEBBetan datu-base bereziak daude zaharren tratu txarretaz, eta esperientziaz dakit han zerbaiti buruzko datu-baseak daudenean, zerbait hori errealitate izango dela hemen, bospasei urteren buruan.

Izan ere, orain dozena bat urte pentsaezinak zitzaizkigun jarrera eta erantzunak antzematen ditugu inguruan. Zaharretxea jartzearen aurkako auzotarren protestetaz ari naiz, arazo hori zailtasunak sortzen ari bait da lagundutako etxebizitzak sustatzerakoan. Anekdota hutsen maila gainditzen dute, baita ere, zenbait onurek piztutako erreakzioek; lehen esan bezala, zalantzatan jar daiteke horien interes eta egokitasuna -garraio publikorako dohaneko pase ditxosozkoak, esaterako-, baina erreakzioak hor daude, eta egunkarietako «zuzendariari gutunak» sailak irakurtzea baino ez dago, horretaz jabetzeko. Kontua da, laguntzok, egoki izan ala ez, normaltasunez onartu zirela ezarri zirenean eta, hala ere, batipat iritzi publikoaren presioak eta, neurri txikiago batean, kostuak horiek kentzea edo gutxienik murriztea lortu dute.

Funtsean azpimarkatu nahi dudana hauxe da, oso arriskutsua dela, behin eta berriro egiten den bezala, zahartze soziala eta biologikoa parekatzea, horrek bidea ematen bait du zenbait sektore ideologikok biologian oinarritutako irtenbide sozialak, arrazakeria, sexismoa eta gerontofobia bultzatzen duten konponbideak, proposa ditzaten. Zahartze sozialaren arazoa planteatzeko moduak, dagoeneko, jarrera natalista eta antifeministak berpiztea ekarri du, eta emakumeek beren rol tradizionalak onartu eta lan merkatua utzi behar dutela adierazten da.

Zahartze demografikoaren gaineko diskurtso tematsu horrek beste arrazoi batengatik ere kezkatzen nau, hau da, ez dakit fenomeno horrek arriskutan jarriko ote duen babes sozialerako gure sistema baina, dudarik gabe, desagertarazteko justifikazioa eman dezake.

Une egokia da beraz -hau idazten ari naizelarik, kontsumo medikoko gozoteria besterik ez digula kenduko iragarri du Osasun ministroak-, geure buruei galdetzeko ea

nondik datorren zahartze demografikoaren kontu hau iragartzeko tema. Zer esan nahi digute zahartzen ari garela esaten digutenean?

Begi bistakoa da erantzuna. Winchesterra hartuta zaharretxeren batetara joateko gonbitea izango ote den susmoa alde batera utzita, absurdoa delako, gauza bakar bat pentsa dezakegu, banketxerik gertuenean Pentsio Plana egitera joateko bultzatu nahi gaituztela.

Azken finean, segurtasunerako dei bat.

Horregatik amorratzen gaitu mezulariak, objetiboki, egungo gure Gizarte Segurantzako errejimenaren oinarria den belaunaldien arteko banaketa sistema solidarioa erasoten duelako.

Eta bide batez, arazoaren erantzunkizuna politika eta ekonomia mailako esparru estrukturaletatik aldendu eta faktore «naturalei» -zahartzea- egozten zaie, eta horrela ezin zaio inori horren kulparik leporatu, ez bada ahalik eta luzeen bizitzeko dugun grina naturalari. Bide beretik eta, hogenak ordainduko dituen lagun hurkoa bilatzeko betiereko ohiturari jarraituz, zaharrak euren gaitzen, eta zehazkiago euren diru gabeziaren erantzule gisa agertzen dira gizartearen begietara.

Gauza jakina da zerbait txarto joan dadin, bai eta burtsan kotizatzen bada ere, gauzak txarto daudelako zurrumurrua zabaltzea dela modurik hoberena. Horrela bada, belaunaldien arteko elkartasunean oinarritzen den gizarte segurantzako sistema eraman ezinezkoa dela zabaltzea da bermerik hoberena, hainbestetan iragarritako krak hori benetan gerta dadin.

Egiazki, gauza segurutzat jotzen da krak hori eta, horrexegatik bultzatzen gaitu telebistako spot zorrotz batek, zergetatik desgrabatu daitekeen Pentsio Plan partikular eta eroso baten babesa bilatzera, biharko egunean semealabei asterokoa eskatu beharra gustatuko ez zaigula argumentatuz.

Segundu gutxitako diskurtso eraginkor horren ikusteak, gogora ekartzen digu telebistarik gabeko eta elkartasuna aukerakoa eta familia ingurura mugatua zen garai hartako parabola. Orduan kontatzen zen behin batean semeak ogia ukatu ziola aitari, aitak bereari gauza bera egin ziola gogoraraziz. Hortaz, belaunaldien arteko elkartasuna antolaturik ez zegoen garaietako arrazoibideetara itzultzen gara.

* * *

Bukatzeko, gogoeta pare bat egin nahi dut babes sozialerako gure sistemaren finantz-krisia dela eta, zehazkiago, zahartzeak esandako krisi horretan omen duen pisuaren gainean.

Hasteko, egiaztatu, zinez garrantzitsua dela 60 urtetik gorako populazioaren menpekotasun indizea, 20-59 urte dituztenekikoa, igo den bezala igotzea, hau da, ehuneko 12a duela hogei bat urte, eta ehuneko 30a 2.000 urtean. Honek zailtasun larriak sortaraz ditzake maila guztietan. Egia da, batzutan neurriz kanpoko garrantzia ematen zaiola arazoari, eta ikasketa ezkorrenek egitura demografikoaren aldaketaren ondoriozko gastu sozialaren gehikuntza, datozen 40 urteetarako, ehuneko 21ean ezartzen badute ere -hots, urteko 0,5a-, 40 urte horietarako ehuneko 2 eta 7 bitarteko igoera iragartzen duten ikerketa baikorragoak ere badira.

Benetako arazoa da, krisiari begira, helduak/zaharrak dependentzia indizearen bilakaerak baino garrantzi handiagoa duela aktibo landunak/inaktiboak harremanaren

bilakaerak, azken hau askoz gehiago degradatzen bait da, azpimarkatuena lehena izan arren. Alegia, zahartzea berez ez da arazoa, edo bigarren mailako arazoa da.

Arazo nagusia da «zaharren» populazioa artifizialki handitzen dela, ekoizpen sistemak gero eta populazio gazteagoari ematen bait dio status hori; gazteagoa kronologikoki eta are gazteagoa biologikoki. OIT-ILOk eginiko ikerketek adierazi dutenez, Europan bataz beste, bost urtetan jeitsi da lana behin betirako uzteko adina azken hamarkadan, eta langabeziagatiko indemnizazio-sistemaren baliabideen erdia baino gehiago, behinbetirako inaktiboei dedikatzen zaie.

Argi gelditu behar da ez dagoela babes sozialaren eta, zehazkiago, zaharreriari buruzko gizarte polikaren krisirik, politika hori kokaturik dagoen ingurune ekonomikoaren krisia baizik. Zahartzaroaren gaineko gizarte politika krisian jartzen ari da, jubilazioa langabeziaren kontrako irtenbidea bilakatu delako. Lan merkatutik gero eta langile gehiago urrunduz, gero eta gazteagoak, kinka larrian jartzen da inaktibo zahar eta aktiboen arteko harremanaren oreka.

Hogeitamar urte bete arte ikasle eta 50ak bete ondoren jubilatu. Ekoizpen sistemaren irrazionaltasunak, gure bizi sistemaren antolaketa sozialarenak, segurtasun eta hazkundearen birikatik arnastu behar horrek sortzen digu krisia, eta horrek eraman gaitzake katastrofera. Zahartze demografikoak ez du errurik. Politikari, enpresari eta sindikatuek behin eta berriro aipatzen baldin badute, nor bere kulpak zuritzen saiatzen delako izaten da, arazoen jatorriak elementu neurtezinetan, fenomeno naturaletan, lehorte tematian bilatu nahian.

Seguro asko pairatu beharko dugun gainbeherakoaz aparte, ondorengo hau da, dudarik gabe, irtenbide bakarra: lana banatu, lojika guztien kontra zahartzaroa gero eta urte gutxiagorekin ezartzen duen muga kronologiko arbitrarioa hautsi, bizitza zikloen espezializazio absurdoarekin bukatu eta gizakien ikasketa, asti eta lan aukerak zentzuz banatu, nork bere aukera eta nahien arabera eta bizitza osoan zehar.

Utopia kutsua du honek, baina gainerakoak adabaki hutsak dira, edo bestela, gizartearen aurrerabidean atzerapauso emateko gogo eutsiezina, interes partikularren onerako.